

## VI. INKESTA SOZIOLINGUISTIKOA 2016

11. kronika: **Euskararen herria zenbakitan (2. zatia)**

Kronika honek Euskal Herria bere osotasunean hartzen du (3 lurralde administratiboak, 7 probintziak). Lehen partean hizkuntza gaitasuna eta hizkuntzen transmisioa aztertu dugu. Bigarren partean euskararen erabilpena eta hizkuntza politikak aipatuko dira.

**3. Euskararen erabilera**

Hizkuntza erabilera neurtzeko, Inkestek 5 mintzamolde erabili dituzte. Hemen euskararen koefizientea zenbatu diegu, euskararen heina kuantifikatzeko :

- *beti euskara (% 100 euskaraz, x 1),*
- *euskaraz erdaraz baino gehiago (%75 euskaraz, x 0,75),*
- *euskaraz erdaraz bezainbat (%50 euskaraz, x 0,50),*
- *euskaraz erdaraz baino gutiago (%25 euskaraz, x 0,25),*
- *beti erdaraz (%0 euskaraz, x 0).*

Aurkezpen ofizialean, euskararen erabilera neurtzen delarik, herritar guziak kontuan hartzen dira, erdaldunak barne, dakigularik erdaldunek ezin dutela euskaraz hitz egin. Ondorio oso ahulak agertzen dira euskaldun baino erdaldun gehiago baita, euskaldunak (hiztunak eta hartzaileak) %45 gara eta erdaldunak %55 dira.

Hemen beste metologia bat erabiltzen dugu :

- Erdaldunak baztertu ditugu, ikusteko zein diren euskaldun hiztunen eta hartzaileen mintzamoldeak.
- « Beti erdaraz » multzotik erdaldunen ehunekoak kendu dugu eta beste mintzamoldeen ehunekoak araberan berriz zenbatu.
- Euskaldunen mintzamolde ezberdinen ehunekoak agertzen dira (hizki zuzenez).
- Mintzamolde bakoitzari bere koefizientea ematen diogu euskararen heina kuantifikatzeko, mintzamoldeka (*hizki etzanez*) eta orokorrean (**hizki lodiz**).

Inkesta osoan euskararen erabilera neurtzen da kominikazio eremuka :

- etxean (burasoak elkarrekin, burasoak seme alabekin, haurrak aita amekin, ainai arreben artean, familia osoa mahai inguruan) ;
- lagunartean, lankideen artean, auzokoekin ;
- eremu publikoan (saltegietan, bankuetan, udalrtxean, administazioan)

Hemen euskaren erabilera orokorra neurtzen da. Erabileraren neurriak metatuak dira komunikazio eremu guziak gehituz, familia, lagunartea, eremu publikoa, jakinez Iparraldean eremu publikoan euskara oso guti erabiltzen dela, ez baita hizkuntza koofiziala. Hegoaldean aldiz euskararen erabilera legezkoa da eremu publikoan.

*Euskaldunen mintzamoldeak lurraldeka eta herrialdeka*

Euskal ko-efizienteak	Euskal jendetza	Euskara gehiago % <i>x 0,875</i>	Euskara berdina % <i>x 0,50</i>	Euskara gutiago % <i>x 0,25</i>	Euskara oso guti % <i>x 0,125</i>	Beti erdaraz % <i>x 0</i>	<b>Euskara-ren hein orokorra</b> %
Euskal Herri	1190000 <i>euskara</i>	28,6 25	17,5 8,6	25,6 6,4	14,5 1,8	13,8 0	<b>%42</b>
EAE	988.500 <i>euskara</i>	30,6 26,8	16,2 8,1	23 5,8	13,9 1,7	16,2 0	<b>%43</b>
Nafarroa	123.300 <i>euskara</i>	23 20,1	18 9	35 8,8	15,6 2	8,3 0	<b>%40</b>
Iparralde	75.000 <i>euskara</i>	7,9 6,9	25,2 12,6	41,5 10,4	18,3 2,3	7,1 0	<b>%32</b>
Araba	103.800 <i>euskara</i>	6,6 5,8	15,1 7,6	34,5 8,6	27,9 3,5	15,9 0	<b>%26</b>
Bizkaia	473.300 <i>euskara</i>	20,6 18	15,1 7,6	27,4 6,9	18,7 2,4	18,2 0	<b>%35</b>
Gipuzkoa	411.400 <i>euskara</i>	45 39,4	18 9	17 4,3	7 0,9	13 0	<b>%54</b>
Lapurdi	54.300 <i>euskara</i>	6,2 5,4	20,5 10,3	43,5 10,9	23,6 3	6,2 0	<b>%30</b>
B-N Zubero	21.100 <i>euskara</i>	12,1 10,6	35,4 17,7	36 9	6 0,8	10,5 0	<b>%38</b>

- Hegoaldeko bi erkidegoetan, euskaldunen laurdenak banabeste euskara erabiltzen du gaztelania baino gehiago eta ondorioz euskararen kantitatea %40 eta gorago da. Hemen nabari da euskaren ofizialtasunaren eragina.

- Iparraldeko mintzamoldea neurri handian elebitasuna da eta euskaraz gutiago. Ondorioz euskararen kantitatea herenaren inguruan da, orokorrean eta herrialdeetan.

**Euskararen aldeko jarrera**

Euskararen aldeko jarrera neurtzeko 16 urtez goragoko biztanleek, euskaldun ala erdaldun, adierazi dituzten erabilerari buruzko 4 iritzi zenbatu dira :

- Administrazioan sartzeko euskara jakitea beharrezkoa da

- Hobe da jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino (*ados ez daudenak dira euskara sustatzearen aldekoak*)
- Ezinbestekoa da haur guztiak euskara ikastea
- Irrati/telebistek programa gehiago behar lukete euskaraz

Tipologia holaxet finkatu da: adostasuna nagusi = aldeko jarrera; adostasunik eza nagusi = aurkako jarrera (*ingelesarentzat alderantziz*); ezbaiaren erdigunean = ez alde ez aurkako jarrera. Hona emaitzak ehunekotan lurraldeka eta Euskal Herri osoan 2016ko inkestan eta erreferetzia bat lehen inkestatz.

#### *Euskarari buruzko jarrerak lurraldeka*

Jarrerak	Iparraldea 250.000	Nafarroa 536.000	EAE 1.864.000	E.H. 2016 2.648.000	E.H. 1991 2.295.000
Alde	% 35	% 33	% 65	% 56	% 47
Ezbaia	% 48	% 28	% 19	% 28	% 32
Aurka	% 17	% 39	% 9	% 16	% 21

*Iturria : VI. Inkesta Soziolinguistikoa 2016.*

- Euskal Herri osoa hartuz, aldeko jarrera da nagusi jendetzaren %56ekin, eta aurkako jarrera da ahulena %16kin. 25 urtez aldeko jarrerak 9 puntu irabazi ditu, eta aurkako jarrerak 5 puntu galdu.
- EAEn da aldeko jarrera indartsuena jendetzaren %65ekin, eta aurkako jarrera ahulena %9rekin.
- Nafarroan, alderantziz, aurkako jarrera da indartsuena, jendetzaren %39rekin, aldekoak %33 direlarik.
- Iparraldean, aldiz, ezaxolakeria da nagusi, ez alde ez aurka jarrera (%48) kasik jendetzaren erdiarena delarik. Euskararen aldekoak %35 dira.

Euskararen erabilera sustatzeko jarrera zertan da herrialdeetan? Hona zerrenda bat baikorrenetarik haste: Gipuzkoa (% 75), Bizkaia (% 62), Baxenabarre/Zubero (% 55), Araba (% 53), Nafarroa (% 33, eremu euskalduna % 68), Lapurdi (% 32, barnealdea % 38).

Eta hirietan? Donostia (% 61), Bilbo (% 54), Gasteiz (% 51), Iruñea (% 38) eta BAB (% 26) euskara sustatzearen alde daude.

Adinak ez du eragin handirik, baina bai hizkuntza gaitasunak. Euskara sustatzearen alde daude euskaldunak (% 85), euskaldun hartzaileak (% 61), erdaldunak ere bai neurri ahulagoan (% 39).

#### **Geroko eskola**

Galdea da: „Seme-alabarik bazenu zein hizkuntzatan nahiko zenuke ikas dezaten?“ Lau erantzunak:

- Euskaraz erdara ikasgai, murgilbidea (D eredua).
- Euskaraz eta erdaraz, ikaskuntza elebiduna (B eredua).
- Erdaraz euskara ikasgai, frantsesez edo gaztelaniak gehiago (A eredua).
- Erdaraz bakarrik, dena frantsesez edo gaztelaniaz (G eredua.)

Lurraldeka agertzen dira ikasleen kopurua eta eredu en ehunekoak : hizki **larriz** inkestaturen xedeak, parantesien artean oraingo egoera.

*Ikasteko hizkuntza zure haurrentzat ? (%)*

(Ikasleak 2016an)	Euskal H. (523.586)	Iparralde (48.376)	Nafarroa (105.168)	EAE (370.042)
Euskaraz erdara ikasgai	<b>58</b> (52)	<b>19</b> (7)	<b>35</b> (24)	<b>69</b> (66)
Euskaraz eta erdaraz	<b>24</b> (15)	<b>41</b> (25)	<b>16</b> (0,2)	<b>24</b> (18)
Erdaraz euskara ikasgai	<b>7</b> (15)	<b>17</b> (8)	<b>15</b> (15)	<b>3</b> (15)
Erdaraz bakarrik	<b>10</b> (18)	<b>19</b> (60)	<b>31</b> (61)	<b>3</b> (1)

Iparraldean ezberdintasun handia da jendeen xedea eta oraingo eskola-tzearen artean. %19 dira murgilbidea nahi luketenak beren haurrentzat eta %7 ikasle dira ikastoletan, 12 punturen ezberdintasuna. Bestalde % 19 dira eskola frantsesdun elebakarraren aldekoak eta %60 dira eskola horietan ibilki direnak, 41 punturen ezberdintasuna. Ikaskuntza elebiduna nagusi da jendeen xedeetan (% 41) eta arrakasta ona du errealitatean (%25), 16 punturen aldearekin halere.

Errealitatean erdal eskola elebakarra da nagusi Nafarroan (% 61) eta Iparraldean (%60). Baina eskola elebakarrari buruzko xedeak askoz ahulagoak dira (%31 eta %19 hurrenez hurren). Xedeetan eskola elebiduna da nagusi Iparraldean (%41) eta D eredua Nafarroan (% 35).

EAE n D eredua (murgilbidea) da nagusi, bai xedeetan (%69) baita errealitatean ere (%66). Eskola elebiduna askoz apalago da xedeetan (%24), are apalago errealitatean (%18). EAE n kasik ez da gaztelaniazko eskolatze elebakarrik, salbu etorkin zenbaitentzat Bizkaian (%1), oso guti jendeen xedeetan (%3). Ez lukete nahi ere gaztelaniazko eskolarik, euskara ikaskai asteen 5 orenez (%3), eskola mota honek errealitatean leku gehiago duelarik (%15). Badakite euskara ikasteko gutienez denbora erdiz erabili behar dela.

Hemen ere EAE da jarraibide, errealitatea xede en araberakoa baita. Iparraldean eta Nafarroan xedeak errealitatea baino askoz baikorrak dira. Xede onak ez dira aski egoera aldatzeko, baina baitezpadako lehen urratsak dira egoera hobetzeko.

### Hizkuntza politika publikoen balorazioa

Inkestatu guzietan, euskaldun ala ez, galdegin zaie nola estimatzen zuten azken urte hauetan euskarari buruz antolatutako hizkuntza politikak: « Orokorki nola baloratzen duzu abian ezarri diren euskararen aldeko hizkuntza politika publikoak? Egokiak ala ezegokiak? »

#### Hizkuntza politikaren balorazioa(%)

Hizkuntza politika	1 Egokia zaie	2 Ezegokia zaie	3 Berdin zaie	4 Erantzunik ez	3 + 4 Axolagabe
<b>IPAR EUSKAL H.</b>	<b>19</b>	<b>19</b>	<b>16</b>	<b>46</b>	<b>62</b>
- euskaldun	25	30	13	32	45
- erdaldun	17	15	17	51	68
- 65 urte eta +	18	16	18	48	66
- 16-25 urte	17	14	21	53	74
<b>NAFARROA</b>	<b>36</b>	<b>41</b>	<b>14</b>	<b>9</b>	<b>23</b>
- eremu euskalduna	46	29	15	10	25
- eremu mistoa	40	41	12	7	19
- eremu erdalduna	24	44	20	12	32
<b>EUSKAL A. E.</b>	<b>62</b>	<b>20</b>	<b>2</b>	<b>16</b>	<b>18</b>
- Araba	55	24	3	18	21
- Bizkaia	63	20	1	16	17
- Gipuzkoa	63	17	2	18	20

Iparraldeko herritarren emaitzak etsigarriak dira. Hizkuntza politikari buruz % 19 baikor, % 19 ezkor. Bestalde jendetzaren % 62k ez dute axolarik erakusten, edo berdin zaie (%16), edo ez diote galdeari erantzuten (% 46). Zaharretan %18 baikor eta % 66 axolagabe. Gazteenetan are gaizkiago % 17 baikor eta %74 axolagabe. Euskaldunetan ere ez da kartsutasun handirik 12.000 alde, 15.000 kontra eta 24.000 futitzen. Nola ulertu behar da axola falta hau?

Erantzuna aurki dezakegu Hegoaldearekin konparaketa eginez hizkuntza politika baloratzean. Hemen %19 baikor eta % 62 axola gabe. EAEn justu alderantziz %62 baikor eta %18 axolagabe. Ezberdintasuna Estatu Konstituzioetarik dator: han euskara ofiziala da gaztelaniarekin batera, aldiz hemen frantsesa da Errepublikaren hizkuntza bakarra eta eskualde hizkuntzek ez dute ofizialtasunik; "Frantziaren ondarea" izanikan ere.

Iparraldeko hizkuntza politika laburbil dezagun. 1951ko Deixonne legeaz baliatu gara euskararen irakaskuntza aitzinarazteko “ama eskolatik unibertsitateraino : Ikas, ikastolak, AEK, gela elebidunak, unibertsitate kurtsoak. Hedabideak libratu zirelarik (1981) sortu ziren euskal irratiak eta euskal emankizun publikoak. 1995ean Garapen Kontseiluak bultzatu zuen hizkuntz antolaketa eta gero hizkuntz politika (2000). 2006an, Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) abiatu zuen Hizkuntza Politika Proiektua, ezagutza, erabilera eta motibazioa. 2018an Euskal Elkargoak aurkeztuko du bere hizkuntza politika, euskara eta gaskoierarentzat. Mende laurden batez, ondorioak ez dira baikorrak: 1991an 16 urtez goragoko euskaldunak 60.000 ginen(%32), aurtan 52.500 gara (%21), gehi euskalduntzen ari diren 15.500 ikasleak. Euskalduntzen badira duela 25 urteko kopurua gaintutako dugu.

(EAE) Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntza politika abiatu zen 1982ko Euskaren Legearekin, koofizialtasuna aplikazioa definitu zuena, herritarren hizkuntz eskubideak eta eginbideak zehaztuz. Geroztik legeria nasai bat bozkatua da euskararen irakaskuntzaz eta eremu guzietako erabileraz. Hamar urteko estrategia bat hasi zen 1998an “Euskara biziberritzeko plan nagusia”. Jarraian beste bat 2012an “Euskara sustatzeko ekintza plana”. Ondorioak nabari dira: EAEn 1991an, 16 urtez goragoko euskaldunak 420.000 ziren (%24), aurtan 634.000 dira (%34). 25 urtez 214.000 euskaldunen irabazia, gehi euskalduntzen ari diren 310.000 ikasleak.

Nafarroako euskaldungoa erdibidean dago. 1986ko Euskararen Foru legeak, irakaskuntza eta erabilera finkatu zuen hiru eremutan, eremu euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna. 1989ko Foru Dekretuak euskararen irakaskuntza zatitu zuen 4 eredutan, D (murgilbidea), B (elebitasuna), A (irakaskuntza), G (gaztelania). Gero Foru Dekretu zerrenda luze batek urratsez urrats zehaztuko du euskarren erabilera administrazio publikoan. Adibidez 2007ko Foru Dekretuak sortu zuen Euskararen Nafar Institutoa “Euskarabidea”. Gaur egun Nafarroako Gobernuak bideratu du hizkuntz politikaren Plan Estrategikoa 2016-2019. Ikusiz zein den Nafarroako hizkuntza egoera ondorioak baikorrak dira. 1991an euskaldunak 40.000 ziren (%9,6). 2016an euskaldunak 70.000 dira (%13), 30.000 gehiago 25 urtez. Gainera 26.000 ikasle euskalduntzen ari dira D eta B ereduetan.

## **9. Itzaropena euskararentzat**

Euskal Herri osoari begiratzen badiogu euskararen egoera hobetzen ari da. 16 urtez goragoko euskaldunak, 1991an 530.000 ginen (%22). 2016an 755.000 gara (%29). Azken 25 urte hauetan 225.000 euskaldun gehiago gara %7 puntu irabaziz. Gainera Euskal Herri osoan ikasten ari diren 524.000 gazteetan 358.000 ikasle euskalduntzen ari dira, murgilbidean eta eskola elebidunetan (D eta B ereduetan). Ehuneko 68 ikasle horiek euskalduntzen badira euskaldungoa jendetza osoaren herena baino gehiago izanen da (%35).

Iparraldea da lurralde ahulena aitzinamendu dinamiko horretan. Gure lehen eginbidea da euskaren transmisioa indartzea. Ikusi dugu familia gazteetan euskararen jarraipena azkartzen ari dela. Adibidez, ikasleen burasoetan, biak euskaldunak badira euskararen jarraipena %86koa da (%66 euskara bakarrik, %20 euskara frantsesarekin). Lehen bi burasoak euskaldunak zirelarik euskararen jarraipena %76koa zen (%61 + %15). Beraz 10 punturen hobekuntza da buraso gazteagoekin. Bi burasoetarik bat euskalduna bada eta bestea erdalduna, elebitasunaren jarraipena %54koa da. Lehen, baldintza beretan elebitasunaren jarraipena %16koa zen. Beraz %38 punturen irabazia euskararentzat.

Irakaskuntza mailan Euskararen Erakunde Publikoak belburu hau finkatu du: haurren hiru laurdenak euskal sail batean sarraraz eta ikasleen hiru laurdenak Europako B2 mailaraino helaraz 13 urteak aitzin. Helburua gauzatuko delarik gazteen %56 euskaldunak izanen dira eta estatistikaren arabera 2050ean hemen euskaldungoa jendetzaren %30 izanen da.

Dena dela euskararen erabilera da auzi nagusia. Arrue Proiektuak erakutsi digu ezberdintasun handia badela gaitasuna eta mintzamoldearen artean. EAEn gazte guzietan euskara ikasten dute eta %66k D erduan. Ikasleek zein neurritan erabiltzen dute euskara? Euskararen heina kantifikatuz 14 urtekoek euskara baliatzen dute ikas gelan irakaslearekin %80, atsedendian elkarrekin %40, burasoekin % 30, lagunartean %15, kirol zelaian %5. Koefiziente metodo berdina erabiliz Lartzabaleko Seaska kolegioko ikasleek baliatzen duten euskararen heina honelakoa da, ikasgelan %88, atsedendian %61, etxean, %53, lagunartean %54, kirolean %33. « Eskola euskararen gotorlekua » bada ere eskolatik urrunago eta euskara gutiago erabiltzen da. Zer egin ?

Denen mobilizazioa beharrezkoa da. Irakaskuntza mintzamenari buruz norabidetu behar da, Mikel Zalbidetik aipatzen duen « bizikletaren paradigma » lehenetsiz, ibiliz ikasten da ibiltzen. Lehen ikaskuntza goiztiarra zen helburu, orain erabilera goiztiarra bilatu behar da. Burasoek euskal giroa sortuko dute etxean. Euskaldungo osoak mugitu behar du euskara erabiltzeko, « Euskaraz Bizi », « Euskaraldiak », « Eskolerrian Euskaraz » eta beste. Euskarak bere arnaguneak behar ditu toki orotan.

Eta eremu publikoan zer egin ? Hizkuntza politika agintearen eginbidea da. Iparraldean ezin dugu ko-ofizialtasuna amestu. Baina botere publikoak egin behar duena da, herri hizkuntzari sor zaion onespina adieraztea, euskararen erabiltzeko baldintzak sortzea udaletxeetan eta zerbitzu publikoetan, euskaltasuna laguntzea publikoari buruzko zerbitzuetan, saltegietan ala osasun etxeetan. Orain arte EEPren Hizkuntza Politika proiektuak ahal duena egiten du euskalgintzaren borondate onarekin eta diru laguntza xuhur batzurekin. Orain Iparraldeko egitura aldatu da eta Euskal Elkargoaren gain da euskararen aldeko eskuduntza ofiziala eramatea helburu ausartak finkatuz eta egingizun eraginkorrak sustengatuz.